

2017ko URRIAREN 31n EGINIKO OHIKO UDAL BATZAREN AKTA

2017ko urriaren 31n, Asteasuko Udaletxeko Idazkaritzako bilera gelan, arratsaldeko 20.05 orduetan, Maria Pilar Legarra Cortajarena Alkate anderearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATEA: Maria Pilar Legarra Cortajarena (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK: Jose Ramon Ayerza Sarasua (Asteasu Batuz, AB)
Joseba Txapartegi Nieve (Asteasu Batuz, AB)
Maria Pilar Iturbe Urdangarin (Asteasu Batuz, AB)
Antonio Elicegui Orbegozo (Asteasu Batuz, AB)
Aitor Usandizaga Izaguirre (Asteasu Batuz, AB)
Luke Uribe-Etxebarria Apalategi (EAJ/PNV)

IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Ezin direla etorri aurretik adierazi du: Joseba Txapartegi Nieve (Asteasu Batuz, AB).

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekitzat ematen du Udal Osoko Bilkura:

GAI ZERREDA:

1. Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:

- 2017.09.13ko Udalbatzarraren akta.
- 2017.09.28ko Udalbatzarraren akta.

2. Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:

- 2017.urtekoak (230-269).

3. Udalbatzarreko maiztasuna onestea.

4. 2018 urterako Ordenantza Fiskalen aldaketa.

5. JARDUERA PROTOKOLOA, ADMINISTRAZIO TURISTIKOAREN, EUDEL ETA UDALETXEEN ARTEKOA, ERABILERA TURISTIKOKO ETXEBIZITZETAN ETA LOGELETAN TURISMO LEGEAREN APLIKAZIOARI BURUZ.

6. OH 2017-004: BULANO BASERRIAN PORTXEA ERAIKITZEKO HIRIGINTZA BAIMENA EMATEA.

7. Erregu eta galderak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA.

1. Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:

- **2017.09.13ko Udalbatzarraren akta.**
- **2017.09.28ko Udalbatzarraren akta.**

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 7 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Elicegui, Usandizaga, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien ahobatezko onespenearekin, aipatu akta onartu du.

Une honetan, Haritz Mugika Lasa (Asteasu Batuz, AB) batzarraldira batu da.

BIGARREN PUNTUA.

2. Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:

- **2017.urtekoak (230-269).**

Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN PUNTUA

Udalbatzarreko maiztasuna onestea.

Udalbatzak, 2015eko ekainaren 22ko bilkuran, besteren artean, erabaki hau hartu zuen:

“BAKARRA: Udalbatzako batzarrraldi arruntak bi hilabetez behin izango dira, hileko azken asteazkenean arratsaldeko 20.00 orduetan, eta jaia tokatuko balitz, aurreko edo ondorengo lanegunean”.

Alkatetzak aldaketa-proposamena aurkeztu du; “asteazkenean” ordez “asteartean” izateko. Gaia ez da aurretik iriztu, eta proposamena orain egiten da hurrengo udalbatzarretan eragina izateko.

A.F.A.ren 97.2 artikuluekin bat, Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Elicegui, Usandizaga, Mugika, Uribe-Etxebarria)
Kontrako botuak: 0
Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak proposamena gai-zerrendan sartzea berretsi du.

Bitarteko Idazkari Kontuhartzaileak “in voce” txostena egin du; horren harira, aurkeztutako proposamena bat dator apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2.a. artikuluekin.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Elicegui, Usandizaga, Mugika, Uribe-Etxebarria)
Kontrako botuak: 0
Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak

ERABAKI DU

BAKARRA: Udalbatzako batzarrraldi arruntak bi hilabetez behin izango dira, hileko azken asteartean arratsaldeko 20.00 orduetan, eta jaia tokatuko balitz, aurreko edo ondorengo lanegunean.

LAUGARREN PUNTUA

2018 urterako Asteasukoko Udaleko Ordenantza Fiskalen aldaketa

2018. Urteko ordenantza fiskalei dagokionez, Asteasu Batuz Udal taldearen proposamena aztertu da. Hauek dira proposatu diren aldaketak:

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kuotak finkatzeko elementuak erregulatzen dituen ordenantza fiskala

	Koef	€
a) Turismoak		
9 zaldi fiskal baino gutxiago	2,16	39,69 €
9 tik 11,99 zaldi fiskaletara bitartekoak	2,16	79,37 €
12tik 13,99 zaldi fiskaletara bitartekoak	2,16	132,30 €
14tik 15,99 zaldi fiskaletara bitartekoak	2,16	185,20 €
16tik 19,99 zaldi fiskaletara bitartekoak	2,20	242,62 €
20tik gorakoak	2,20	296,54 €
b) Autobusak		
21 plaza baino gutxiagoak	2,20	183,41 €
21etik 50 plaza bitartekoak	2,20	261,09 €
50 plaza baino gehiagokoak	2,20	326,54 €
c) Kamioiak		
1.000kg baino gutxiagoko karga erabilgarrikoak	2,24	94,68 €
1.000tik 2.999kg.tara bitarteko karga erabilgarrikoak	2,22	185,19 €
2.999kg. baino gehiagotik 9.999kg.tara bitarteko karga erabilgarrikoak	2,22	263,76 €
9.999kg. baino gehiagoko karga erabilgarrikoak	2,22	329,71 €
d) Traktoreak		
16 zaldi fiskal baino gutxiago	2,20	38,91 €
16tik 25 zaldi fiskaletara bitartekoak	2,20	61,13 €
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	2,20	183,41 €
e) Trakzio mekanikodun ibilgailuek arraistran eramandako aoti eta erdi-atoiak		

1.000kg baino gutxiagoko karga erabilgarrikoak	2,20	38,91 €
1.000tik 2.999kg.tara bitarteko karga erabilgarrikoak	2,20	61,13 €
2.999kg. baino gehiagoko karga erabilgarrikoak	2,20	183,41 €

f) Gainerako ibilgailuak

Ziklomotoreak	2,16	9,72 €
125z.k.tarainoko motozikletak	2,16	9,72 €
125etik 250 z.k.tarainoko motozikletak	2,16	16,65 €
250etik 500 z.k.tarainoko motozikletak	2,16	33,35 €
500etik 1.000 z.k.tarainoko motozikletak	2,16	66,69 €
1.000 z.k. baino gehiagoko motozikletak	2,16	133,38 €

Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasak

D) Jarduera sailkatuei baimena ematea eta jarduera sailkatuen aurretiazko komunikazioak.

Tasa honetatik baserriak salbuetsiak egongo dira.

A) Dendak, Zerbitzuak

A.1. Baimena behar duten jarduera sailkatuak	772,50
A.2. Aurretiazko komunikazioa behar duten jarduera sailkatuak	618,00

B) Industriak

a) Baimena behar duten jarduera sailkatuak:

300 m ² arteko azalera dutenak	1.030,00
301 m ² tik 800 m ² artekoak	1.545,00
801 m ² tik 1.400 m ² artekoak	2.060,00
1.401 m ² tik 2.000 m ² artekoak	2.575,00
2001 m ² tik gorakoak	3.090,00

b) Aurretiazko komunikazioa behar duten jarduera sailkatuak	772.50
---	--------

l) Telekomunikazioa:

- Etxeko, urteko tasa: 30,54

Udalerriko jabari publikoa norberak bakarrik edo modu berezian erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa

C) Erabilpen publikoko lurrak:

Eraikuntza, instalakuntza eta obrak:

- Obra-hondakin, eraikuntza, materiala, andamioak, e.a.: m2 eta egun bakoitzeko: 0,70€.

D) Asteasuko udal igerileku irekia:

Abono familiarrak (Tarifa Asteasu):

Seme-alaba bat duten bikoteak	120,00
Seme-alaba bat duen gurasobakar	80,00

Bi seme-alaba dituzten bikoteak	150,00
Bi seme-alaba dituen gurasobakar	110,00

Hiru seme-alaba edo gehiago dituzten bikoteak	150,00
Hiru seme-alaba edo gehiago dituen gurasobakar	110,00

Abono familiarrak (Tarifa Orokorra):

Seme-alaba bat duten bikoteak	200,00
Seme-alaba bat duen gurasobakar	150,00

Bi seme-alaba dituzten bikoteak	250,00
Bi seme-alaba dituen gurasobakar	200,00

Hiru seme-alaba edo gehiago dituzten bikoteak	250,00
Hiru seme-alaba edo gehiago dituen gurasobakar	200,00

Modificación de las Ordenanzas Fiscales del Ayuntamiento de Asteasu para el año 2018

En relación con las Ordenanzas Fiscales del Ayuntamiento de Asteasu para el año 2018, se ha analizado la propuesta del grupo municipal Asteasu Batuz. Estas son las modificaciones propuestas:

Ordenanza fiscal reguladora de los elementos esenciales para determinar las cuotas del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica

Coef €

a) Turismos

De menos de 9 caballos fiscales	2,16	39,69 €
De 9 hasta 11,99 caballos fiscales	2,16	79,37 €
De 12 hasta 13,99 caballos fiscales	2,16	132,30 €
De 14 hasta 15,99 caballos fiscales	2,16	185,20 €
De 16 hasta 19,99 caballos fiscales	2,20	242,62 €
De 20 caballos fiscales en adelante	2,20	296,54 €

b) Autobuses

De menos de 21 plazas	2,20	183,41 €
De 21 a 50 plazas	2,20	261,09 €
De más de 50 plazas	2,20	326,54 €

c) Camiones

De menos de 1.000 kilogramos de carga útil	2,24	94,68 €
De 1.000 a 2.999 kilogramos de carga útil	2,22	185,19 €
De más de 2.999 a 9.999 kilogramos de carga útil.	2,22	263,76 €
De más de 9.999 kilogramos de carga útil	2,22	329,71 €

d) Tractores

De menos de 16 caballos fiscales	2,20	38,91 €
De 16 a 25 caballos fiscales	2,20	61,13 €
De más de 25 caballos fiscales	2,20	183,41 €

e) Remolques y semirremolques arrastrados por vehículos de tracción mecánica

De menos de 1.000 y más de 750 kg. de carga útil	2,20	38,91 €
De 1.000 a 2.999 kilogramos de carga útil	2,20	61,13 €
De más de 2.999 kilogramos de carga útil	2,20	183,41 €

f) Otros vehículos

Ciclomotores	2,16	9,72 €
Motocicletas hasta 125 c.c	2,16	9,72 €

Motocicletas de más de 125 hasta 250 c.c	2,16	16,65 €
Motocicletas de más de 250 hasta 500 c.c	2,16	33,35 €
Motocicletas de más de 500 hasta 1.000 c.c	2,16	66,69 €
Motocicletas de más de 1.000 c.c	2,16	133,38 €

Tasa por la prestación de servicios o la realización de actividades administrativas municipales

D) Otorgamiento de licencias de actividad clasificada y comunicación previa de actividad clasificada.

Quedarán exentos de esta tasa los caseríos.

A) Comercios

A.1. Actividades clasificadas sujetas a licencia	772,50
A.2. Actividades clasificadas sujetas a comunicación previa	618,00

B) Industrias

a) Actividades clasificadas sujetas a licencia	
Hasta 300 m ² de superficie	1.030,00
De 301 m ² a 800 m ² de superficie	1.545,00
De 801 m ² a 1400 m ² de superficie	2.060,00
De 1401 m ² a 2000 m ² de superficie	2.575,00
De más de 2001 m ² de superficie	3.090,00
b) Actividades clasificadas sujetas a comunicación previa	772,50

I) Telecomunicaciones:

- Tasa anual por domicilio:	30,54
-----------------------------	-------

Tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local

C) Utilización de espacios de utilidad pública:

Construcciones, instalaciones y obras:

- Residuos de obra, edificación, materiales, andamios, etc: por m² y día: 0,70€.

D) Piscina descubierta municipal:

Abono familiar (Tarifa Asteasu):

Parejas con 1 hij@	120,00
Monoparental con 1 hij@	80,00
Parejas con 2 hij@	150,00
Monoparental con 2 hij@	110,00
Parejas con 3 hij@ o más	150,00
Monoparental con 3 hij@ o más	110,00
Abono familiar (Tarifa General):	
Parejas con 1 hij@	200,00
Monoparental con 1 hij@	150,00
Parejas con 2 hij@	250,00
Monoparental con 2 hij@	200,00
Parejas con 3 hij@ o más	250,00
Monoparental con 3 hij@ o más	200,00

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Uribe-Etxebarria jaunak hitza hartu du: igerilekuetako abonoei dagokionez, galdetu du hilabete bakoitzeko abonoak izan daitezkeen.

Idazkariak hitza hartu du: informazio batzordean gaia aztertua izan zen eta, besteren artean, abono ezberdinen prezioak aldatzeko proposamena egin da, baina beti ere denboraldio osorako. Batzordean adierazi zuen herritarrei eta herritik kanpokoei dagoen prezio ezberdinak ez datorrela bat legearekin; hala eta guztiz ere, herritik kanpoko erabiltzaileen prezioak (hobariak barne) igo dira.

Alkate andreak hitza hartu du: abonoak denboraldi osorako dira, eta ez da proposatu hilabetekoak izatea, izan ere, zerbitzuak defizita sortzen du urtero eta, aldaketa hori eginez gero, defizita altuagoa izango baitzen.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Elicegui, Usandizaga, Mugika, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- 2018 urterako Asteasuko Udaleko Ordenantza Fiskalen aldaketak hasierako izaeraz onartzea

BOSGARREN PUNTUA

JARDUERA PROTOKOLOA, ADMINISTRAZIO TURISTIKOAREN, EUDEL ETA UDALETXEEN ARTEKOA, ERABILERA TURISTIKOKO ETXEBIZITZETAN ETA LOGELETAN TURISMO LEGEAREN APLIKAZIOARI BURUZ.

EUDELEk igorri du 'Jarduera-protokoloa, Administrazio Turistikoaren, EUDEL eta Udalen artekoa, erabilera turistikoko etxebizitzetan eta logeletan turismo-legea aplikatzeari buruzkoa'. Berau Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren eta EUDEL Euskadiko Udalen Elkartearen arteko lankidetzaren baitan landu da.

Udal guztiei protokolo hau erabiltzea gomendatzen zaie, xedea izanik Turismoari buruzko 13/2016 legea betearaztea eta Administrazio Turistikoari euskal udalerrietako turismo-erabilerarako logela eta pisuei dagozkien tramitazioan, kontrolean, informazioan eta komunikazioan laguntzea.

Honela dio:

JARDUERA PROTOKOLOA, ADMINISTRAZIO TURISTIKOAREN, EUDEL ETA UDALETXEEN ARTEKOA, ERABILERA TURISTIKOKO ETXEBIZITZETAN ETA LOGELETAN TURISMO LEGEAREN APLIKAZIOARI BURUZ.

-I-

13/2016 Legeak, Turismoarena, 2006/123 Zuzentarauarekin bat datorrena, zerbitzuei buruzkoa, ostatu-enpresa turistikoari erantzukizunpeko adierazpena ezartzen die jarduera hasteko eta ulertzen da -zioen azalpenean agertu bezala- sistema horrek bermatzen duela zerbitzuak libreki zirkulatzea eta enpresen lehiakortasun sustatzen duela eta zerbitzu turistikoak ez arautzeak ekar ditzakeen ustekabeko ondorioak ekiditen ditu.

Testuinguru horretan, Legearen helburuetako bat da informazio eta komunikazio teknologia berriei esker sortu diren ostatu eredu berriei babes juridikoa ematea; zehazki, produktu turistikoak merkaturatzeko erabiltzen den sare globalaren erabilerari dagokionez, hala nola, erabilera turistikoko etxebizitzak eta erabilera turistikoko etxebizitza partikularreko logelak.

Helburu horiek lortzeko, Legeak Euskadiko Administrazio Turistikoari esleitzen dio enpresa turistikoen jarduera arautzeko eskumena, baita behar diren neurriak hartzeko beste Administrazio Publikoen lankidetzarekin. (5.1.b),i) Art.).

- II -

Librea da turismo-jardueran aritzea, baina aplikatzekoa den indarreko legeria bete behar da; beraz, zerbitzu turistikoren bat emateko interesa duen edozein pertsona kokatu ahal izango da Euskadin, baldin eta komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkezten badu. 15

Erantzukizunpeko adierazpena dokumentu bat da, interesdunak sinatzen duena adierazteko: batetik, ezagutzen eta betetzen dituela indarreko araudiak ezartzen dituen betekizunak jarduera turistikoa aurrera eramateko; bestetik, baduela adierazitakoa egiaztatzen duen dokumentazioa eta Administrazioaren esku utziko duela hala errekeritzen dionean.

Legeak ezartzen du betekizun guztiak espresuki eta modu argi eta zehatzean jaso beharko direla dagokion erantzukizunpeko adierazpenean, azpimarratuz bereziki, halakorik badago, zerga- eta hirigintza-arloko betebeharrak ezagutzea eta betetzea, gai horien konplexutasun eta garrantzi berezia direla medio.

Jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpena izenpetuta aurkeztearekin batera, dena delako jarduera garatzeko gaikuntza lortzen da, adierazpena aurkezten denetik bertatik, hargatik eragotzi gabe administrazio eskudunek esleituta dituzten egiaztapen-ahalmenak eta berehalako ondorio bezala dauka Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan inskribatzea.

Legearen 20.9 artikulua xedatu bezala Euskadiko Turismo Administrazioak zehaztuko du zein den jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpenaren eredu ofiziala eta zer dokumentazio erantsi behar zaion; era berean, zehaztuko du zer dokumentazio izan behar duen pertsona fisiko edo juridikoak, eta prozedurako zer baldintza bete behar diren kapitulu honetan aipatzen diren izapideak egiteko. Horrez gain, argitaratuta eta eguneratuta edukiko ditu idatzi-ereduak, jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpenarenak eta beste batzuk. Edozein kasutan, Euskadiko Turismo Administrazioak ahalbidetuko du adierazpen hori modu telematikoan aurkeztea, baita gainerako administrazioekiko koordinazioa

- III -

Erantzukizunpeko adierazpen hori behar bezala aurkeztu ostean, Euskadiko Turismo Administrazioak egiaztatuko du ea betetzen diren ala ez lege honetan eta berau aplikatzeko erregelamenduetako arauetan ezarritako betekizunak. Egiaztapen hori ezin da bete, araudiaren aplikazioa Udaletxeei baitagokio, Udaleko administrazioaren laguntzarik gabe.

- IV -

Protokolo hau 13/2016 Legearen 7. Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera egin da, beste Administrazio Publiko batzuekin akordioak eta protokoloak egitea aurreikusten duena, legea betetzea sustatzeko, kontsumitzaileen babesa bermatzeko, eta jarduera klandestinoak eta legez kontrako eskaintza desagerrarazteko.

Ostatu forma desberdinei dagokienez, eta 13/2016 Legearen 3. Xedapen Iragankorra kontuan hartuz, eta gerora erregelamenduz gara daitekeena eragotzi gabe, lege hau indarrean sartu eta erabilera turistikoko etxebizitzek eta erabilera turistikoko logela partikularretako ostatuak trafiko turistikoan jardun nahi badute, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute

- V -

Arestian aipatutakoarekin bat etorritik, eta Euskadiko Administrazio Turistikoaren eta Udaletxeen arteko jarduketa koordinatuaren oinarriak ezartzeko, 13/2016 Legea aplikatzeko lehenengo

fasean, eta erabilera turistikoko etxebizitzaren eta erabilera turistikoko logela partikularrei dagokienez, egingo den araudiaren garapenaren aurretik, honokoa aurkeztu da:

JARDUERA PROTOKOLOA

LEHENENGOA.- XEDEA.

Protokolo honen xedea da Euskadiko Administrazio Turistikoaren eta Udaletxeen arteko erlazioak finkatzea, erabilera turistikoko etxebizitzaren jardueraren eta erabilera turistikorako etxebizitza partikularren logelei dagokionez, 13/2016 Legeak, Turismoaren, araututakoak. Horretarako, jarduketa prozedura bateratua ezartzen da, Administrazio Turistikoaren aurrean aurkeztutako erabilera turistikoko etxebizitza zein logelen erantzukizunpeko adierazpenak, Udaletxeari dagokie kontrola, araudira egokitzen diren konprobatzeko.

BIGARRENA.- ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Turismo enpresa baten titularrak, erabilera turistikoko etxebizitzaren eta erabilera turistikoko logela partikularretako ostatuaren modalitatean, erantzukizunpeko adierazpena Administrazio Turistikoaren aurrean aurkeztuko du, zehazki etxebizitza non kokatzen den, dagokion Lurralde Bulegoan.

HIRUGARRENA.- UDALEKO TXOSTENA

Turismoko Lurralde Bulegoak dagokion Udaletxeari bidaliko dio bere udalerrian dauden etxebizitzaren erantzukizunpeko adierazpenak, berak indarrean dagoen araudia betetzen duen edo ez adierazi dezan.

Zehazki, Udaletxeak bi kontuei buruz emango du informazioa:

c) Etxebizitzaren erabilera urbanistikoa bat datorren edo ez eskatu denarekin.

- 13/2016 Legeak, Turismoarena, 53.10 artikuluan xedatutakoaren arabera erabilera turistikoko etxebizitzek lehen okupazioko lizentzia edo bizigarritasun-zedula eduki beharko dute. Ostatu-zerbitzu turistikoa izateko, erabilera urbanistikoa, udaletxeak ezarri dituen hirigintza arauak egokitu behar da (hirugarren sektorea, jarduera ekonomikoak, ekipamenduak edo egoitza).
- Higiezinaren antzinatea dela eta, edo artxiboetan ezin bada informazioa topatu, edo antzeko beste zergatiak direla eta, Udaletxeak ezin badu lehen okupazioko lizentzia edo bizigarritasun-zedula identifikatu, txostena egin ahal izango du jatorrizko etxebizitzaren bizileku izaera ezartzen duen adostasun txostena eginda.

Ondore horietarako, txostenak etxebizitzaren bizileku izaera soilik azaldu behar du (bere momentuan obra-lizentziarekin eraikia) eta ez ditu etxebizitzaren gaur egungo bizigarritasun baldintzak aztertuko eta, beraz, ezingo du esan, *in situ* ikuskaritza egitea.

- Dena den, 13/2016 Legea Udalen autonomia printzipioa guztiz errespetatu interpretatuko, hirigintza antolamenduaren alorrean duten udal eskumena aitortuz.

Zentzu horretan, etxebizitzaren erabilera turistikoa garatzea komenigarria dela kontsideratzen da, horretarako egokia den udal plangintza erabiliz, era horretan jarduerak babes juridiko handiagoa izango du eta udalerrian aipatu erabilerean

antolamendu hobeagoa bermatuko da (mugak ezarri daitezke, behar bezala justifikatuta, bai dentsitate handia duten guneeetan, baita higiezin bakoitzean jarduera hori daukaten etxebizitzaren portzentajeari dagokionez, edo beste parametro batzuek erabiliz)

d) Udaletxearen aurrean jardueraren aldez-aurreko jakinarazpena aurkeztu behar den edo ez.

Udaletxeak adieraziko du, baita ere, jarduera kontsideratzen duen edo ez, aldez-aurreko jakinarazpena behar duen sailkatutako jarduera moduan 3/1998 Legeak, Euskal-Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra, xedatutakoa kontuan hartuz (II, B Eranskina) 7: *“Hotelak eta egoitza komunitarioak, , adineko pertsonen egoitzak, apopilo etxeak eta antzeko establezimenduak; eta, dagokionean, interesdunak aipatu jakinarazpena aurkeztu duen eta horri buruz intzidentziaren bat dagoen edo ez.*

Ondore horietarako, ulertzen da, berariazko araudirik ezean, erreferentziazko baldintzak etxebizitzari dagozkienak izango direla eta ez direla aplikagarriak izango hotel-establezimenduei dagozkien xedapenak, irisgarritasunari dagokienak, etab.

LAUGARRENA.- TXOSTENA EMATEKO EPEA

Lehenengo fase batean, Administrazio Turistikoak eskaeren zerrenda emango dio Udaletxeari, data horretan, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu dutenena, erabilera turistikoko etxebizitza eta logelei dagokienez

Udaletxeak txostena bidaliko du horretarako baliabideak baditu, eta ezezko txostenei emango die lehentasuna (etxebizitzaren erabilera urratzen dutelako, adibidez, hirigintza araudiak ezarritako mugaren bat). Dena den, txosten guztiak Protokolo hau sinatu eta hilabeteko epean balditzen saiatuko da, Protokolo hau sinatu eta hiru hilabeteko epean.

Lehenbiziko kontaktu honen ondoren, Administrazio Turistikoak ondoren aurkeztu diren adierazpenak bidaltzen jarraituko du eta Udaletxeak, eskaera jaso eta 15 egun naturaleko epean, saiatuko da txostena bidaltzen.

BOSGARRENA.- ADMINISTRAZIO TURISTIKOAREN JARDUERAK.

a) Administrazio Turistikoak baja emango dio Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan, Udaletxeen kontrolpean dauden baldintzak betetzen ez dituzten erabilera turistikoko etxebizitzari eta etxebizitza partikularren logelei.

Horretarako, udaletxeko txostena jaso ondoren, interesdunari bidaliko zaio eta alegazioak aurkezteko epea emango zaio. Epea igaro ondoren Ebazpena emango du zentzu batean edo bestean. Ebazpenak jarduera turistikoaren jarraitzearen ezintasuna inplikatu du, inskripzioa ezereztuko da eta establezimendua itxiko da. .

Ebazpena irmoa denean betearazi egingo da eta erabilera turistikoko etxebizitzaren edo etxebizitza logelaren jarduera uzteko agindua emango da.

b) Halaber, Administrazio Turistikoak, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan baja emango die etxebizitza zein logelei jakitun denean Udaletxeak ixteko agindua edo jarduera eteteko agindua eman duenean.

Horretarako, Udaletxeak Administrazio Turistikoari jakinaraziko dio egoera hori, dagozkien Ebazpenen kopia helaraziz.

Administrazio Turistikoak ebazpena emango du interesdunari jakinaraziz Erregistroan baja eman diola eta ezin duela jarduerarik jarraitu.

c) Administrazio Turistikoak bertan behera uzteko agindua betetzen ez dela egiaztatzen badu, dagokion ikuskapena egin ondoren, zehapen espedientea abiaraziko du.

SEIGARRENA.- INFORMAZIOA JAKINARAZTEA.

Administrazio Turistikoak eta Udaletxeek erabilera turistikoko etxebizitzetara eta etxebizitza partikularreko logelei buruzko jarduera klandestinoaren informazioa elkar komunikatzeko konpromisoa hartzen dute, baita jarduera eteteko aginduen berri, edo, bakoitzak dituen eskumenak garatzeko interesgarria izan daitekeen beste edozein informazio.

Administrazio Turistikoak gainera, konpromisoa hartzen du Udaletxeekin informazio kanala irekitzekoa, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan izen emanda dauden erabilera turistikoko etxebizitzetara eta logelei dagokienez.

ZAZPIGARRENA.- INFORMAZIO KANPAINAK

Administrazio Turistikoak eta Euskadiko Udaletxeek lankidetzan aritzeko interesa agertzen dute, elkarrekin edo koordinatutako ekintzen bidez, dibulgaziozko kanpainak egiten hiritarrei orokorrean edo erabilera turistikoko etxebizitzetara eta logelen titular zein erabiltzaileentzat, eragindako agente guztiek dagozkien eskubide zein betebeharren informazioa izan dezaten produktu turistiko horiei dagokienez.

ZORTZIGARRENA.- PROTOKOLOAREN ONDORENGO GARAPENA

Jarduera Protokolo hau prozeduren eta tramiteen sinplifikaziora orientatzen da, eta exijitutako errekerimenduen gardentasuna, argitasuna eta objetibotasuna ahalbidetu nahi du, erabilera turistikoko etxebizitzetara eta erabilera turistikoko etxebizitza partikularren logelen ostaturari dagokienez.

Horretarako, leihatila bakarra lortu nahi da, interesdunak aukera izan dezan Administrazio Turistikoaren aurrean bere dokumentazioa aurkezteko eta, sarbidea izan dezan, horren bidez, jarduera horiek egiteko Udaletxe bakoitzak ezarri dituen baldintzei buruzko informazio argia eta zalantzarik gabekoa jasotzeko.

Gasteiz ,2017ko irailaren 25a

ERANSKINA

13/2016 LEGEA, UZTAILAREN 28KOA, TURISMOARENA

18. artikulua.– Kokatzeko askatasuna eta turismo-jardueretan libreki aritzea.

1.– Libre da turismo-jardueran aritzea, baina aplikatzekoa den indarreko legeria bete behar da; beraz, zerbitzu turistikoren bat emateko interesa duen edozein pertsona kokatu ahal izango da

Euskadin, baldin eta komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu, eta, hala badagokio, dagokion gaikuntza lortzen badu.

2.– Euskadiko Turismo Administrazioak turismo-jarduera eta zerbitzu turistikoak antolatu eta kontrolatuko ditu, lege honetan eta berau garatzen duen araudian ezarritako moduan.

20. artikulua.– Turismo-jarduera hastea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan turismo-jarduera batean lanean hasi baino lehenago, turismo-enpresa baten titular izanik jarduera horretan hasi eta horretan jardun nahi duen pertsona fisiko edo juridikoak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dio Euskadiko Turismo Administrazioari, garatu nahi duen jarduera horretan aritzeko bete behar diren betekizunak betetzen dituela adierazten duena.

2.– Lege honen ondorioetarako, turismo-jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpena dokumentu bat da, interesdunak sinatzen duena bere erantzukizunpean adierazteko: batetik, ezagutzen eta betetzen dituela eskubide edo ahalmen baten aitortpena lortzeko edo horiek gauzatzeko indarreko araudiak ezartzen dituen betekizunak; bestetik, baduela adierazitakoa egiaztatzen duen dokumentazioa eta Administrazioaren esku utziko duela hala errekeritzen dionean, eta, azkenik, betekizun horiek guztiak betetzeko konpromisoa hartzen duela aitortpen edo gauzatzeko horri dagokion epealdi osoan.

Aurreko paragrafoan adierazitako betekizun guztiak espresuki eta modu argi eta zehatzean jaso beharko dira dagokion erantzukizunpeko adierazpenean, azpimarratuz bereziki, halakorik badago, zerga- eta hirigintza-arloko betebeharrak ezagutzea eta betetzea, gai horien konplexutasun eta garrantzi berezia direla medio. Euskadiko administrazio turistikoek edozein unetan errekeritu ahal izango dute aurkez dakiela aipaturiko betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa, eta aurkeztu egin beharko du interesdunak.

Adierazpen hori jardueraren titularrak edo turismo-enpresaren legezko ordezkariak edo establezimenduaren jabeak sinatu beharko du, eta, behar izanez gero, baita jabeak bere establezimendua kudeatzeko ardura aurretik emana dion pertsona juridiko kudeatzaileak ere.

3.– Jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpena aurreko zenbakian ezarritako moduan izenpetuta aurkeztearekin batera, dena delako jarduera garatzeko gaikuntza lortzen da, adierazpena aurkezten denetik bertatik eta iraupen mugagabe baterako, salbu araudiak Administrazioaren alde aurreko baimen espezifikoren bat eskatzen duenean, hargatik eragotzi gabe aplikatu beharreko beste arau batzuek ezartzen dituzten betebeharrak eta administrazio eskudunek esleituta dituzten egiaztapen-ahalmenak. Erantzukizunpeko adierazpena aurkezteak gaitu egiten du turismo-jardueran aritzeko lege honetan ezarritako baldintzetan, baina hori ezin izango da inoiz ere salbuesgarri gisa alegatu beste arlo bateko araudia ez betetzearen aurrean.

4.– Jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpena osorik aurkezteak berehalako ondorio zuzena izango du: inskribatuta geratuko da lege honen 24. artikuluan arautzen den erregistroan.

(../...)

9.– Euskadiko Turismo Administrazioak zehaztuko du zein den jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpenaren eredu ofiziala eta zer dokumentazio erantsi behar zaion; era berean, zehaztuko du zer dokumentazio izan behar duen pertsona fisiko edo juridikoak, eta prozedurako zer baldintza bete behar diren kapitulu honetan aipatzen diren izapideak egiteko. Horrez gain, argitaratuta eta eguneratuta edukiko ditu idatzi-ereduak, jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpenarenak eta beste batzuk. Edozein kasutan, Euskadiko Turismo

Administrazioak ahalbidetuko du adierazpen hori modu telematikoan aurkeztea, baita gainerako administrazioekiko koordinazioa ere.

21. artikulua.– Administrazioak egiaztatzea.

1.– Aurreko artikuluan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpen hori behar bezala formalizatu eta aurkeztu ostean, Euskadiko Turismo Administrazioak egiaztatuko du ea betetzen diren ala ez lege honetan eta berea aplikatzeko erregelamenduetako arauetan ezarritako betekizunak. Gero, interesdunari jakinaraziko dio deklaraturakoa legearen arabera den ala ez. Akatsik edo desadostasunik ezean, interesdunari jakinarazi beharko zaio zer datu jaso diren Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan; besteak beste, erregistro-zenbakia, kategoria eta, baldin badu, espezialitatea.

2.– Euskadiko Turismo Administrazioak inskripzioa ezeztatuko du baldin eta funtsezko zehaztugabetasunik, faltsutasunik edo omisiorik atzematen badu jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpenean edo hari erantsi edo gehitutako dokumentuetan jasotzen diren datuetan, edo atzematen badu nahitaezko dokumentazioa falta dela edo ez direla betetzen aplikatu beharreko betekizunak. Ondorioz, egitate horien berri jasotzen den unetik bertatik ezin izango da turismo-jarduera hori egiten jarraitu; hori gorabehera, legeko erantzukizuna eskatu ahal izango da, dagokion prozedura instruituta, zeinean entzunaldia emango baitzaio interesdunari.

Prozedura horren ondorioz, arrazoietan oinarritutako ebazpena emango da erregistroko inskripzioari baja emateko edo hura ezeztatzeko, baita establezimendua ixteko edo jarduera horretan aritzea debekatzeko ere. Era berean, inguruabar horien berri ematen duen ebazpenak erabaki ahal izango du arduradunak jarduera hasi aurreko egoera berera itzuli behar duela egoera juridikoa, nahitaez.

3.– Euskadiko Turismo Administrazioak, prozedura horretaz aparte, dagokion zehapen-prozeduraren instrukzioa hasiko du baldin eta aurreko zenbakian aipatzen den zehaztugabetasunik, faltsutasunik edo omisiorik atzematen badu.

4.– Lege honen ondorioetarako, jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpeneko edo hari erantsi edo gehitutako dokumentuetan jasotzen den edozein datutan funtsezko zehaztugabetasuna, faltsutasuna edo omisioa dagoela joko da baldin eta horiek:

a) Interesdunaren nortasun fisiko edo juridikoaren egiaztapenari eragiten badiote.

b) Pertsonen segurtasunari arriskua ekar badiezaioke, eta bereziki:

1) Suteen aurkako prebentzio- eta babes-arloan nahitaezkoa den dokumentazioa falta bada edo gabeziak badaude arlo horretan.

2) Autobabeseko eskulibururik ez badago, edo exiji daitekeen kasuetan ezartzen ez bada.

c) Honako hauei eragiten badiete: establezimenduaren sailkapenari (taldea, kategoria, betekizunak) eta, hala badagokio, erregelamenduetako arauen arabera eska daitezkeen bermeei, aseguruari eta dokumentazio osagarriari.

d) Eskainitako zerbitzu eta produktu turistikoaren irisgarritasun-baldintzei eragiten badiete.

5.– Aldiz, jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpenean edo hari erantsi edo gehitutako dokumentuetan jasotzen den edozein datutan funtsezkoa ez den zehaztugabetasunik, faltsutasunik edo omisiorik atzeman ez gero, edo 2. zenbakian agertzen ez diren bestelako legezko betebeharrak ez direla betetzen ikusiz gero, errekerimendua egingo da zuzendu beharrekoak zuzentzeko edo betebeharrak betetzeko 15 eguneko epean.

Atzemandako akatsak zuzenduta, interesdunari jakinarazi beharko zaio zer datu jaso diren Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan; besteak beste, erregistro-zenbakia, kategoria eta, baldin badu, espezialitatea.

6.– Aipatutako epea igaro, eta errekerimenduari kasurik egin ez bazaio, dagokion administrazio-prozedura izapidetuko da eta turismo-jarduera aldatzeko edo, hala badagokio, uzteko aginduko da.

Halakoetan, lege honetan aurreikusitako zehapen-araubidea aplikatuko da.

37. artikulua.– Ostatu-establezimenduak: kontzeptua.

1.– Ostatu-establezimendutzat jotzen dira prezio bidez aldi baterako ostatu-zerbitzua ohikotasunez eta profesionalki eskaintzen dutenak, erregelamenduz ezarritako baldintza eta ezaugarrien arabera. Establezimendu hauetan ostatatzeak ez dakar egoitza-aldaketarik erabiltzailearentzat.

Ez dira ostatu-establezimendutzat jotzen, eta ez dira lege honen aplikazio-eremuan sartzen, eskusiboki erakunde-, gizarte-, osasun-, laguntza-, lan-, irakaskuntza- edo kirol-xedeak dituzten ostatu-jarduerak, ezta haur, gazte eta babes berezia behar duten beste talde batzuentzat Administrazioaren programen markoan garatzen direnak ere.

2.– Aldi baterako ostatutzat hartzen da urtebetetik beherako iraupenez modu jarraituan eskaintzen den ostatua.

38. artikulua.– Ostatu-establezimenduak: motak.

1.– Mota hauetakoak dira ostatu-establezimenduak:

- a) Hotel-establezimenduak.
- b) Apartamentu turistikoak.
- c) Kanpinak.
- d) Nekazaritza-turismoko establezimenduak eta landetxeak.
- e) Aterpetxeak.
- f) Erregelamendu bidez zehaztutako beste establezimendu-mota batzuk.

44. artikulua.– Kontzeptua.

1.– Apartamentu turistikoak: Ostatu-unitatez osatutako establezimenduak dira, ustiapen-unitate enpresarialaren printzipioaren pean kudeatutako multzo independente gisa eskaintzen direnak; aldi baterako ostatua ematen dute, profesionaltasunez eta ohikotasunez. Establezimendu hauetan ostatatzeak ez dakar egoitza-aldaketarik erabiltzailearentzat.

Apartamentu turistikoak bloke edo multzo modalitateetan ustia daitezke.

Blokea: Eraikin edo konplexu turistikoa, pisu, apartamentu, villa, txalet edo antzekoez osatua; erabilera erkideko instalazio edo zerbitzuak ditu, eta ustiapen-unitate enpresarial bakar batek erabiltzen du turismo-trafikorako.

Multzoa: Bi ostatu-unitate turistikoaz edo gehiagoz osaturiko agregatu bat da, bloke bat eratzen ez duena; multzoa osatzen duten unitate horiek eraikin berean egon daitezke, edo elkarren ondoko eraikinetan, eta ustiapen-unitate enpresarial bakar batek erabiltzen du turismo-trafikorako.

Ostatu-unitatea: Apartamentu turistikoen establezimendu bateko pieza independente bat da, erabiltzaileak beretzat bakarrik erabiltzen duena.

2.– Aurreko zenbakian adierazitako jarduera egiten dela ulertuko da aipaturiko eraikinak lagatzen direnean erabiltzeko eta lupertzeko. Erabilera eta luperketa horien artean sartuko dira, hala dagokionean, erabilera erkideko zerbitzu eta instalazioak, establezimendua dagoen blokean edo multzoan daudenak.

3.– Ohikotasuna dagoela ulertuko da baldin eta establezimenduaren publizitate- edo merkaturatze-ekintzak egiten badira, turismo-eskaintzarako edozein bitarteko, euskarri edo kanal erabiliz, edo ostatu ematen bada urtean bitan edo gehiagotan, guztira hilabetetik gorako iraupenez.

4.– Apartamentu turistikoen establezimendu bakoitza ustiapen-unitatearen printzipioari atxikiko zaio beti, eta haren administrazioaren titularra pertsona bakarra izango da.

5.– Blokea osatzen duten apartamentu turistikoen establezimendu bat jabetza horizontalaren araubidearen edo antzeko figuren arabera eratuta dagoenean, entitate kudeatzaile edo ustiatzaileak Jabetza Erregistroaren ziurtagiriz egiaztatu beharko du establezimendu osoak eta haren ostatu-unitate bakoitzak –edozein dela ere jabea– erabilera turistikoa izango dutela apartamentu turistiko bezala, eta orobat enpresa ustiatzaileari laga zaiola erabilera.

Jabe bakoitzak konpromisoa hartuko du enpresa ustiatzaile bakar batek kudea dezan eraikin osoa, barne direla erabilera erkideko guneak eta ostatu-unitate guztiak. Horretarako, dagokion kontratua izenpetuko dute.

6.– Enpresa ustiatzaileak bere gain hartuko du dena delako establezimenduaren ostatu-unitate guztiak modu jarraituan kudeatzea.

7.– Erregelamenduz ezarriko dira ostatu-unitateen alderdi hauek: nola osatuko diren, zer instalazio eta zerbitzuz hornituko diren, zer betekizun eta baldintza bete behar dituzten eta nola funtzionatu behar duten.

8.– Landa-eremuan kokatutako apartamentu turistikoek kasu bakoitzean aplikatzekoak diren ingurumen-legeriaren baldintzak bete beharko dituzte.

53. artikulua.– Erabilera turistikoko etxebizitzak: kontzeptua eta aplikazio-eremua.

1.– Erabilera turistikoko etxebizitzak: Turismo- edo opor-arrazoiengatik ostatu bezala eskaintzen edo merkaturatzen diren edozein motatako etxebizitzak dira, jabeak, ustiatzaileak edo kudeatzaileak hirugarren batzuei lagatzen dizkietenak, aldi baterako eta berehala erabiltzeko moduan. Behin eta berriz edo ohikotasunez eta kontraprestazio ekonomiko baten truke merkaturatzen dira, zuzenean edo zeharka.

Errentapeko etxebizitza bat erabilera turistikorako lagaz gero, errentariak aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena, eta inskribatuta egon beharko du Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan. Era berean, egin nahi duen jardueraren berri eman beharko dio, nahitaez, errentatzaileari.

Honako eraikin hauek sartzen dira sailkapen honen barruan, zerrenda ez delarik ez osoa, ez mugatzailea:

– Jabetza horizontalaren araubideko etxebizitza independenteak, familia anitzeko eraikinetan edo atxikietan daudenak.

– Familia bakarreko etxe banakakoak edo binakakoak.

– Eraikuntza aurrefabrikatu finkoak edo antzekoak.

Etxebizitza horien barruan sartzen dira apartamentu partikularrak, estudio deritzenak, pisuak, villa deiturikoak zein txaletak.

2.– Erabilera turistikoko etxebizitzek honako arlo hauei buruzko araudietako betekizunak bete beharko dituzte: azpiegiturak; hirigintza; eraikuntza eta etxegintza; segurtasuna; ingurumena; osasuna eta kontsumoa eta, laneko arriskuen prebentziorako araudia betez, higiena eta laneko osasuna. Horietaz gain, baita aplikagarri den beste araudi batek eskatzen dituen betekizun guztiak ere, hala baldin bada.

3.– Kasu honetan, honako hauek sartzen dira lege honen 2.n) artikuluan definitutako turismo- eskaintzen kanalen barruan: etxebizitzetako egonaldi turistikoak epe motzerako merkaturatzen dituzten enpresak, eta opor-erabilerarako etxebizitzak eskaintzen dituzten higiezin merkatuko agente edo bitartekaritza-enpresak.

4.– Lege honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 29ko 29/1994 Legearen edo hura ordeztzen duen araudiaren arabera errentatzen diren etxebizitzak.

5.– Etxebizitza bat erabilera turistikorako errentatzen dela ulertuko da baldin eta, aplikatu beharreko araudiaren arabera, ezin bada egiaztatu ezen egindako kontratua hiri-errentamenduen legeriaren arabera dela.

6.– Ezin izango da etxebizitzarik errentatu jarduera turistikoa hasteko beharrezkoa den alde aurreko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu gabe Euskadiko Turismo Administrazioan. Lege honen ondorioetarako, klandestinitzat joko da adierazpen hori egin gabe etxebizitzak kontratatzea edo ustiatzea.

7.– Ohikotasuna dagoela ulertuko da baldin eta etxebizitzaren publizitate- edo merkaturatze-ekintzak egiten badira turismo-eskaintzarako edozein bitarteko, euskarri edo kanal erabiliz, edo ostatu ematen bada urtean bitan edo gehiagotan, jarraikako 31 egunez edo gutxiagoz.

